

NAFAR HIZKUNTZA

euskera@diariodenavarra.es

Raquel Samitier Iruñeko ilustratzaileak Txabi Arnal eta Edu Zelaietak idatzitako 'Aleppo' zazpi pediatrik' liburuarentzat irudiak egin ditu. Haurrentzat gerra irudikatzea erronka bat izan da.

Pediatrik, Alepoko heroiak

ION STEGMEIER

Iruñea

LIBURU edo proiektu bakoitza abentura berri bat bezala ikusten du Raquel Samitier Iruñeko ilustratzaileak. "Testu bakoitzak materiale ezberdin bat eskatzen dit, estilo diferente bat, marrazteko era bat", azaltzen du. Liburu bakoitzean gauza berri bat egiten du, horretan saiatzen da behintzat, baina bere azken proiektuak planteatzen ziona erronka berezia izan da: nola marraztu gerra umeentzat?

Txabi Arnal Gilek eta Edu Zelaietak istorio dibertigarriak idazten dituzte normalean baina behin irakurri zuten Alepoko azken pediatria bonbardaketa batean hil zela eta beraien buruari galdetu zioten segidan: zenbat pediatria zeuden Alepon? Nola hil ziren? Nola bizi ziren? Horrela jaio zen *Alepoko zazpi pediatrik* liburua. Elkar argitaletxetik, ondoren, Raquel Samitierri liburua ilustratzeko proposamena luzatu ziotenean, honek segituan esan zuen baietz, testua irakurtzean liluratuta gelditu zen eta.

Arte Ederretan eta Humanitateetan lizentziatua, duela urte batzuetatik hona liburuak ilustratzen ditu Samitierrek, baina orain arte ez zuen inoiz horrela gai latzei aurre egin. "Gai horrek errespetua ematen zidan", onartzen du Samitierrek. Eskuz edo era digitalean marrazkiak egiterakoan karikatura kutsu bat ikusten zien bere irudiei, gaiaren azalean gelditzen zirela iruditzen zitzaion. "Gerra giro bat irudikatu behar nuen eta hori erraztuko zuten materialeak topatu", dio. "Ikatz-zirira etorri zitzaidan burura, orduan, ikatz marrazkien egiturak suntsipen giroa oroitarazten didate", azaltzen du.

Azken pediatria

Raquelek hainbat materiale erabili izan ditu liburuan. Gero, beraiekin eta hainbat paper ebakinekin, irudiak konposatzen ziotuen eta argazki bat atera. Horrela materialeak bertan jarraitzen duela sentitzen du. "Benetakoa da, ez da nik egin dudana marrazki bat, baizik eta benetakoa den zerbaiten argazkia, gerra bezala", dio. Materiale horien artean semola eskukada bat erabili izan du, adibidez, liburuko pertsonaiek egunero semola jaten zutela kontatzen dutenerako. Samitierrek sentitzen zuen irakurlearentzat materiale horiek ikutzea posible zela. "Gerra



Alepoko zazpi pediatrik liburuan agertzen den ilustrazioetako bat.

RAQUEL SAMITIER

bezala, benetakoa da, esistitzen daa, nahiz eta gugandik urrun daukagun", azaltzen du. "Marrazkia eta bere estetika sartzeko nire modua izan da hau, fribolizatu edo karikaturizatzen nagoela sentitu gabe".

Koloreak ere era berezi baten antolatu ditu. Eszenatokiak beltzak eta ilunak dira, ikatz-ziriaz eginak; liburuan zehar agertzen diren pediatrik puntu zuria ematen diote orrialdeei eta haurrak, azkenik, kolore biziak osatu ditu. "Umeen koloreak itxaropena eta poza adierazten dute", azaltzen du.

Lana zaila izan da. Azken finen, egoera latz hauen gainetik itxaropen puntu bat ere eman nahi izan die ilustrazioei. Hori

izan da liburuaren erronka nagusia. "Hondamendian fantasia dago", laburtzen du berak. "Roberto Benigniren *La vita è bella* filmean antzeko zerbait da, haur munduari lekutxo bat egiten dio, fantasiari, koloreari, baina guzti hori hondamendian kokatuta, gerra hor dago".

Beste seiak asmatutakoak dira baina egia da liburuan agertzen den Mohammed—Mohammed Wasim Moaz—Aleppo azken pediatria izan zela. Al Quds ospitalean egiten zuen lan Mohammed, bertan izandako eztanda ikaragarri batek Alepo mutu utzi zuenean; magiaz, saltoz eta irriz betetzen ziren Alepoko kontsultak bonbek eta misilek suntsitu zuten arte.

Iñigo Satrustegik irabazi du euskaraz Iruña Hiria Poesia Saria

Iruñeko Udalak Nafar Ate-neoarekin elkarlanean antolatutako Iruña Hiria Nazioarteko Poesia Sarien irabazleak ezagutu dira dagoeneko: Euskarazko modalitatean Iñigo Satrustegi Andrések irabazi du, *Hondarreko berorik geratzen bada* lanagatik; gaztelaniaz, berriz, Juan Marqués Martínek irabazi du, *El mar y los demás* lanagatik. Lehiaketara 342 olerki-bilduma aurkeztu dira, 324 gaztelaniaz eta 18 euskaraz, 109 emakumezko eta 233 gizonezko sortuak. Saria eskuratu duten bi egileen poema-bildumak argitaratuko dituzte, eta 3.000 euro eskuratuko ditu bakoitzak. Iñigo Satrustegi (Iruñea, 1997) Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua da, eta hizkun-tzein eta kulturarekin lotutako lanetan aritu da: besteak beste, itzultzaile gisa aritu da, hainbat komunikabiderekin kolaboratu du, eta kultur ekimen herrikoietan parte hartu du. **DN**

Odei Guirado eta Fernando Oiarzun saritu ditu Mintzolak

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko bi ikerketa-lan saritzeko deialdia argitaratu zuen martxoan. Denera, hiru lan aurkeztu dira deialdi honetara, eta epaimahaiak bi hauek hautatu ditu: Odei Guirado Irasuegiren *Babes-sistema, haurrak eta eguneroko mintzamoldea*. Harremamundu bat euskaratik eta euskaraz harilkatzeko ikerketa aplikatua, eta Fernando Oiarzun Sagastibeltzaren *Leitzako hitanoa: corpusa osatzeko eta erabilera berpizteko saiakera*. Ikertzaile bakoitzak 3.000 euro gordin jasoko ditu, eta 2026ko otsailaren 27ra bitarteko epea izango du lana ondu eta aurkezteko. **DN**

Angel Ugartebururen nobela, belaunaldi oso baten lekukotza

Hegan eta jare Angel Ugarteburuk idatzitako nobela da, eta dagoeneko liburu-dendentan eros daiteke. Bere bizitzako hainbat pasarte dakartza idazleak, Berriatuko (Bizkaia) baserritik irten eta Derioko apaiztegian sartu zenean hasita. Abadegai lagunak, abadetzarako pausoa eman edo ez, gero kultura jardutea, politika giroa diktaduraren azken urteetan, ikasketak, lanbidea... Familia-giroa ere sarritan jorratzen da, ospakizunak, bidaiak eta abar aitzaia direla. **DN**



ALEPOKO ZAZPI PEDIATRAK

Testua: Txabi Arnal eta Edu Zelaia
Ilustrazioak: Raquel Samitier
Argitaletxea: Elkar
Bilduma: Kuku
Orri kopurua: 52
Salneurria: 11,40 euro